

OTSO BIHOZBERA

Jokalariak : Lukas otso gaztea, haren hiru anaiak, Lukasen aita eta ama, aitatxi eta amatxi, Ahuntza eta bere zazpi pitikak, Txanogorritxu, hiru xerri ttipiak, Pello, haur-jalea, Erpurutxo eta haren sei anaiak

Lukas, otso gazteak, bere familia agurtzen du bidea hartu aitzin. Bidaiariz jauntzia da.

Lukas : Handia naiz. Ordu da ene bizia egin dezadan.

Aita : Banekien egun hori noizbait gertatuko zela.

Ama : Zinez hire eskasa sentituko diat. Artetan berri zenbait igor izkik eta ez ezakala ahantz gure etxeko atea beti irekirik atzemanen dukala.

Amatxi : Ene biziko eguzkia haiz. Oroit hadi zein uros bizi izan garen elkarrekin.

Aitatxi : Har ezak ordulari hau. Bazekiat betidanik gutiziatzen dukala.

Lukas : O ez, aitatxi, zinez sobera da !

Aitatxi : Istoriorik ez ! Aitatxiri ez zaio sekula desobeditzen.

Anaia gazteak : Kantatuko diagu bertso bat hire joatearen karietara.

Agur anaia, kanta dezagun !
Gorde negar eta malko !
Ea horrela ahanzten dugun
dukala joan beharko !

Aita : Are, semetxo, joateko tenorea duk. Habil eta otsoki porta hadi.

Ama : To, horra jateko on dituzkanen zerrenda. Eta ez utz hire bihotza gehiegi beratzera.

Burasoak besarkatzen ditu eta etxetik badoa.

Bidean, ahuntz bat bere pitikez inguratua gurutzatzen du.

Lukas : Nor zarete ?

Ahuntza : Ni ahuntza naiz eta hara ene zazpi pittikak.

Lukas : Amak eman zerrendan agertzen zarete... so egizu hemen... pittikakia. Janen zaituztet beraz.

Ahuntza : Kasu honetan denak jan behar gaituzu bertzenaz janen ez zenituzkenak ezin kontsolatuak lirateke.

Lukas : Alabaina. Ongi pentsatuz ez naiz aski gose. Ikus arte anderea !
(bere baitan) Holako bazkari ederra ez huen menturaz eskapatzera utzi beharko !

Bat-batean buruz-buru gertatzen da Txanogorritxurekin.

Lukas : Nor haiz hi ?

Txanogorritxu : Txanogorritxu naiz.

Lukas : Amak eman zerrendan haiz. Janen haut beraz.

Txanogorritxu : Otoi, otoi, otso jauna, ez nazazula jan ! Amatxi sobera triste litzateke ! Bakarrik bizi da oiha batean eta nire beharra du alegeratzeko.

Lukas : Nire amatxik gauza ber-bera dio. Habil fite hemendik ni ideiaz aldatu aitzin.
(bere baitan) Zinez sobera bihozbera naiz.

Hiru xerrikume ikusten ditu. Hirurak lan egiteko arropen jauntziak dira.

Lukas : Nor zarete, jaunak ?

Hiruek : Xerrikumeak gara.

Lukas : Ederki ! Zuek ere ene zerrendan zarete. Janen zaituztet beraz !

Xerri bat : Utz gaitzazu bederen azken aldikotz kantatzera.

Agur anaiak kanta dezagun !
Gorde negar eta malko !
Ea horrela ahanzten dugun
dugula elkar utziko ! **(Harmen hartzera doinuan)**

Lukas : Kantu hori bera kantatu zidaten anaiek etxetik abiatu nintzelarik. Zoazte hemendik ni xedez aldatu aitzin.
(bere baitan) Sobera bihozbera naiz, anitzez sobera.

Boz bat gibeletik : Aha ! Hor haiz ! **(Mutiko tipi bat agertzen da, eskopeta eskuan)**

Lukas : Nor haiz, hi ?

Mutikoa : Pello izena diat.

Lukas : Nire zerrendan haiz.

Pello : Hi ere nire zerrendan haiz. Aitatziri desobeditu zioat hire ihiztatzera etortzeko eta...

Lukas : AITATXIRI EZ ZAIO SEKULA DESOBEDITU BEHAR ! ENTZUN DUKA?

Pello lasterka eskapatzen da iziturik.

Lukas : Ikusi ote da egundaino hain bihozbera den otsorik ? Badu orenak eta orenak fitsik ez dudala jan. Orain ahamen batean ikimiliklik iretsiko nituzke ahuntzen familia osoa, Txanogorritxu eta hiru xerrikumeak, Pello lotsagabe hori ahantzi gabe.

(Etxe baten aitzinera heldu da)

Agian zorte ona izanen dut eta jateko zerbait aurkituko.

Lukas : Hela ! Badea norbait ?

Gizon erraldoi bat **(ganibet bat eskuan)** : HABIL HEMENDIK IHIZI TZARRA ! **(eta atea brau hesten du)**

Lukas : A hori duka ! **(Barnera jauzi egiten du. Borroka azantza entzuten da. Otsoa, tripa hantua bezala agertzen da.)** A! Zer ase ! Ez naiz sekula hain ontsa ase ! Funtsean ordu zen. Gose hamikatua nintzen.

(Orduan auhen ttipi batzuk entzuten ditu. Kaiola batean haur ttipi batzuk ikusten ditu giltzapeturik.)

Jes, zer ari zarete hemen ? Nor zarete ?

Haur bat : Ni Erpurutxo naiz eta horra nire anaiak. Haur-jaleak preso atxikitzen gintuen berantxeago jateko. Meheegi atzematen gintuen berehala jateko eta gizentzen ezarriak gintuen. Bihotz-bihotzez eskertzen zaitugu. Zuri esker haur-jaleak ez gaitu janen.

Lukas : A! Zorte oneko eguna duzue ! Eskapa zaitezte fite !

Hartzen du amak eman zerrenda eta erraiten du aldi bakoitz marratuz : pittikakirik ez, Txanogorritxu ez, xerrikumeak ez, Pello ez... **(Eta idazten du)** haur-jalea !

Papera plegatzen du eta ateratzen da.